



adabaki 'petatxoa, partxea'	«Zulatuari adabaki txiki biribil bat jarri dio eta atzamarrekin zanpatzen duen bitartean emakume begibeltzari begira jarri da berriz ere, pentsakor.»	(0)
ahalean 'ahal bezain laster'	«...hala ere, ahalean jaitsi da maldatik behera, dagoen argi eskasarekin behin baino gehiagotan estropezu eginda.»	(0)
ahopean 'ia entzuten ez den ahotsez'	«...gero, eskuak astiro-astiro mahai gainerantz ekarri ditu eta, bata bestearen gainean jarrita, berriz ere patxadaz eta ia-ia ahopean esan du...»	(0)
aienatu 'desagertu'	«Aitor bertan lotu da, geldi-geldi, hain era bitxian ezagutu berri duen emakumea zelan abiatzen, urruntzen eta azkenean aienatzen den begietsiz.»	(0)
amoltsu 'maitakorra'	«—Kaixo, maitea, lekutxo bat baduzu zure lagun Miriamentzat?» —eta musu amoltsu bat eman dio masailean.»	(0)
apatz 'biguna'	«Begiak emeki-emeki zabaldu zaizkionean, Aitorrek ez du jakin non dagoen: motel argiztaturiko gela bat, sabaian zurezko habeak, sofa apatza ...»	(0)
argizagi 'zeruko gorputz distiratsua'	«Aintzirako ur barearen gainean, ilargi zuri, betea ageri da... agertoki goibel hartako argizagi bakarra...»	(0)
arnasan be guzurra 'gezurti hutsa (izatea)'	«—Badakizu zer? Arnasan be guzurra askok.»	(0)
artegatu 'urduritu'	«—Nola? —galdetu du Garik harriduraz. Artegatzen hasia da.»	(0)
arteztu 'zuzendu'	«Gorputza artezteko ahaleginetan dabil, baina barneko zama astuna du oztopo...»	(0)
ataza 'egitekoa, eginkizuna'	«Hain berezkoak, hain egunerokoak izaten diren atazak artifizialak eta nekezak bilakatu zaizkio: aulkitik jaikitzea, tabakoa sakelan sartzea...»	(0)
atoan 'behingoan, segituan'	«—Lasai, nik badituz partxeak-eta. Atoan konponduko dugu.»	(0)
bakandu 'soildu, murriztu'	«Hiru minutugarrenean, aintziraren bazterreko baso bakandutik gizona zeko sendo baten gorputza sumatu du.»	(0)
begiluze 'ikusnahia, kuxkuxero'	«Neuk baino gehiago dakie kazetari begiluzeok! »	(0)
begitandu 'iruditu'	«...konpromisozko irribarra izan da, Aitorri erantzun txepel samarra begitandu zaiona.»	(0)
begitarte 'aurpegia'	« <i>ezpada haren begitarte liluragarriaren aldartea, Vronskyren ondotik iragan zenean, bereziki goxoa eta xamurra zelako...</i> »	(0)
behinen 'funtsezkoena'	«Bilatu xehetasun txikiak, besteoi iges egingo leuskiguen zertzeladak... egiara helduteko behinenak izan leitekezanak...»	(0)
behingoan 'berehala, segituan'	«—Hobeto egongo zara zer edo zer beroa hartuz gero. Behingoan natortzu.»	(0)
behinola 'behin batean'	«...haren izena, <i>Lidia Etxenagusia</i> , ifrentzuan grabaturik daukan lepokoa, aitatik behinola opari egin ziona.»	(0)
beldursartu 'beldur kendu ezina'	«Gari beldursartua dago. Hala ere, ez du planteatu ere egiten ondo ala txarto jokatu duen.»	(0)
beregain 'burujabea, independentea'	«Bera ere, Lidia, hor dago, jendearen emanarekin bat egina den arima gazte bat, sentipen freskoak, berriak dastatu nahi dituen emakume askea, beregaina ...»	(0)
beste barrikako txakolina 'beste kontu bat, desberdina'	«Egia ete dan aitortu dauana... hori beste barrikako txakolina da.»	(0)
betertzez 'begi ertzez, albotik'	«Edari bat barran hartu eta mahai txiki-txiki batean jarri da. Liburua babes duela, jendeari begiratzen dio eten barik, betertzez gehienetan.»	(0)
bilbatu 'elkar gurutzatu'	«Hiru eskuek batak bestearekin hatzak bilbaturik dauzkate, elkartasuna edo batasuna irudikatuz bezala...»	(0)
braust 'kolpera, oldarrean'	«Laguna braust sartu da, berritsu eta imintzioka, energia gainezka balu bezala.»	(0)



buru-belarri 'eginahalean'	«...Lidia bere enpresako langela nagusian dago, kezka eta atsekabeak ahaztu eragiten dizkion proiektu batean lanean, buru-belarri ...»	(0)
dindirri 'zintzilik dagoen zer edo zer'	«—Eta dindirri horri ondo eutsi, ez dadin beste inora joan...»	(0)
dirua galgarri 'diruak galdu egiten gaitu'	«...beti gehiago, beti gehiago gura dogu eta horrek galduten gaitu: dirua galgarri .»	(0)
doi 'justu'	«Eta laster... krak! Askatu egin da palankaren eraginez, gorputza doi ateratzeko besteko tartea utziz.»	(0)
doi-doi 'justu-justu'	«Zortzi eta erdiak doi-doi direnean sakelako telefonoak dar-dar egin dio amerikanaren barruan, gorputz osoan hotzikara desatsegina sentiaraziz.»	(0)
dzanga egin 'uretara jauzi egin'	«...Italiako laku urdinera dzanga egin du, ispiluzko ur azala urratzera...»	(0)
egurats 'airea, atmosfera'	«Atseginenez arnastu du iluntzeko egurats umeltzen hasia.»	(0)
elorri 'arantza (zuhaixka mota)'	«— Elorriengatik izango da. Ugari dago inguru honetan.»	(0)
enparauak 'gainerakoak'	«—Horixe, <i>irurac bat</i> , parkatu..., ba, ninotsun moduan, zure bitxietako bat aldean eta enparauak atzo agertu ziran.»	(0)
epelak eman 'egurra eman, jo'	« Epelak eman badizkio ere, Gari indartsuagoa da eta ondo oratuta dauka besotik. Amiltzera daroa.»	(0)
erdiragarri 'erabat'	«Lidia oinazetan dago, gogoeta erdiragarri horiek bere sinesmenak eta susmoak batera eta bestera darabiltzatela...»	(0)
erreskadan 'segidan'	«Lau zigarro erreskadan erre ditu eta urduritasun gero eta handiagoa sentitzen du.»	(0)
etorri 'jario lasterra'	«“Orain entzun ondo —eta etorri handiz hasi zaio mintzatzen oraingoan barruko ahotsa—...»	(0)
ezari-ezarian 'apurka-apurka'	«Taberna, ezari-ezarian , jendez betetzen dabil.»	(0)
ezkaratz 'etxeko sarrerako gela zabala'	«Atea irekitzean ezkaratz moduko bat dago eta emakume begibeltzak bizikleta bertan uzteko esan dio Aitorri.»	(0)
ezpabere 'osterantzean, bestela'	«—Geldi! Ezpabere tiro egingo deutsugu! Ez mogidu ezta apur bat be!»	(0)
ezpadaze 'baiziki eta, aitzitik'	«Baia ez deutso deitu, ezpadaze mezua bialdu deutso. Zergaitik?»	(0)
goretsi 'goratu, aintzatespena adierazi'	«...lanbidea gogoko duzu eta zure bezeroek goretsi egin ohi dute haientzat egiten duzun lana.»	(0)
gotor 'sendoa, irmoa'	«Atea, berriz, gotorra da eta gaztain zurez egina.»	(0)
guzurra biderdikoa da 'gezurrari laster antzematen'	«...baia bestetik guzurra biderdikoa da , esan gura dot, guzur bat sinestuarazoteko beste lau esan behar, ta hor galduten da guzurria.»	(0)
guzurrak hankak labur 'gezurra laster harrapatzen'	«...ta hor galduten da guzurria, ze, nahita ez, guzurrak hankak labur ...»	(0)
haztatu 'eskuko hatzez ikutu'	«Aitorren esku sorgorren atzamarrekin haztatu du bitxia eta gizonaren txirindulari-elastikoaren gerri-patrikan sartu...»	(0)
hitz-beste egin 'gaia aldatu'	«—Aizu — hitz-beste egin du emakume begibeltzak— ...sakelako telefonoa ekarri al duzu?»	(0)
hobe beharrez 'asmorik onenaz'	«...hara: zeure hobe beharrez eta bai errubakoa izanik betiko kartzelara joan leiteken Aitorrengaitik be, gauza bat eskatu behar deusut...»	(0)
hozkirri 'hotz samarra'	«Udaberriko arratsalde eguzkitsu bat. Giro hozkirria .»	(0)



hozkirri 'hotzikara'	«—Bai —erantzun du Garik, eta erantzuteaz batera gorputz guztia hozkirri haundi batek astindu dio.»	(0)
hurreean 'agian, seguru asko'	«“Txirindulariren bat da, hurreean ”»	(0)
hutsal 'garrantzirik gabea'	«Edaria hozten den bitartean gai hutsalak izan dituzte hizpide.»	(0)
ifrentzu 'atzeko aldea'	«...haren izena, <i>Lidia Etxenagusia</i> , ifrentzuan grabaturik daukan lepokoa, aitik behinola opari egin ziona.»	(0)
iltzez eta giltzez itxi 'zeharo itxi, goitik behera itxi'	«Maite, horrela deitzen baita, ez zen inon ageri, etxea iltzez eta giltzez itxita laga du eta, gainera, leiho guztiek burdinsareak dituzte: kartzelan nago!»	(0)
imintzio 'keinua'	«—Miriam! —oihu egin dio Lidiak lagunari, aldi berean eskua jaso eta sorbaldan jotzeko imintzioa eginez.»	(0)
inarrosi 'astindu'	«Paisaia inorgabe hori sentitzean beste hotzikara batek inarrosi du Lidia...»	(0)
inorgabe 'bakartia'	«Paisaia inorgabe hori sentitzean beste hotzikara batek inarrosi du Lidia...»	(0)
intziri 'aienea, zizpurua'	«—Bai —baietsi du Garik, hitz bat baino gehiago intziri bat jaulkiz, hain dago izaturik...»	(0)
irrikaz 'gogo biziz'	«Tankera askotako jendea dabil batetik bestera, urrats azkarrez gehienak, lehiatsu, asteburuan etorkizun denari irrikaz heldu nahiko baliote bezala.»	(0)
itaun 'galdera'	«Ikaragarria da hau guztia, Aldamiz jauna, sentiduten dot atsekabetutea, gogaitutea neure itaunakaz ...»	(0)
izu-laborriz 'izuz'	«Arestiko paseatzailea ikusi du berriz ere, baina izu-laborriz ohartu da zelan honek eskuaz zeinu bat egin duen, Garik harengana so egitean.»	(0)
jaulki 'atera, bota'	«—Bai —baietsi du Garik, hitz bat baino gehiago intziri bat jaulkiz , hain dago izaturik...»	(0)
jite 'joera'	«Garik, hotz-hotzean begiratuta, gonetarako jite nabarmena erakutsi izan du beti, baita ezkondu ostean ere. »	(0)
katramilatu 'nahastu'	«...irteerarik gabeko pentsamendu korapilatsuetan katramilatzen denetan, pedalei gogorrago eragiten die...»	(0)
kiribildu 'kizkurtu'	«...Miriam eta zu... biak baltzaranak, ulea apur bat kiribildua , gorpuzkerak be antzekoak...»	(0)
kuttun 'esanahi bereziko idunekoa'	«Eta, nola ez, horrelakoetan beti aldean eraman ohi duen kuttuna : bere <i>irurac bat</i> ...»	(0)
lahar 'sasiaren landarea'	«—Elorria izan nahiz laharra izan, kontua da hemen ez daukadala konpontzekorik ezer...»	(0)
lakar 'latza, leuntasunik gabekoa'	«Eta, sorgorraldi labur horretatik irten denean, inguruan ez dago inor, aienatu da ahots lakarreko silueta...»	(0)
lardaskatu 'nahasi, mordoilotu'	«—Hara, eguna lardaskatu egin zaizula.»	(0)
lastertasun 'abiadura'	«...zalantzan dago bizkorrago ekin eta aurrea hartu ala lastertasuna moteldu eta urruntzen utzi.»	(0)
lohi 'zikina'	«Matik, gaztetako lagunak, beti negozio lohietan ibili zenak bidali dion gizona da, zalantzarik gabe.»	(0)
loka 'ondo finkatu gabe'	«Handik hamar minutura loka samar zegoen barrote bat mutur batetik amore ematen hasi da...»	(0)
lorratz 'aztarna, arrastoa'	«Baia, telefonoan dagoan mezuan “Mendikoborda” dinoanez, ba, lorratz bat itxi deusku...»	(0)
lorrin 'belarra galdu duen lurra'	«Orbela, sasiarte, adaxka eta lorrin oro amorruez zapalduta barneratzen da mendibidean gora...»	(0)



lotu 'gelditu'	«Aitor bertan lotu da, geldi-geldi, hain era bitxian ezagutu berri duen emakumea zelan abiatzen, urruntzen eta azkenean aienatzen den begietsiz.»	(0)
makur 'kaltea'	«Errudun ez da sentitzen, ez baitu okerrik egin, ez baitio bere bizitzan, nahita behintzat, inori ere makurrik egin. »	(0)
malda 'aldatsa, aldapa'	«Aitorrek Aritzeta basoko maldari ekin dio pedal kolpe sendoz...»	(0)
men egin 'obeditu'	«Lidiak men egin dio barruko ahotsaren oihartzun sorrari eta jaiki egin da kafesnea prestatzera joateko.»	(0)
minsor 'min iraunkor eta ez oso handia'	«Ohartzeaz batera burua pixka bat goratu, baina astuntasun itzela sumatu du gorputzean eta bai burua estu-estu hartzen dion minsor bat.»	(0)
morroi 'mutila'	«Eta treneko morroia ... atxilotu genduan gizon gaztea?»	(0)
mozolokeria 'ergelkeria, tentelkeria'	«—Kolokatuta nago, neska, benetan diotsut, horregatik nabil hitz eta pitz, mozolokeriak bata bestearn atzetik esanez...»	(0)
mukuru 'goraino'	«Gero pitxer txiki batetik esne apartsuz hornitzen hasi da, mukuru bete arte.»	(0)
niri bost 'ez dit batere ardura'	«—Eta zer? Niri bost . Hobeto, horrela etxea zainduko didazu.»	(0)
nontzeberri 'kontukatilua'	«—Et, et, et. Ni ez naiz jakinguratsua, ezta nontzeberria ere, baina nik zu <i>aspertu</i> zaitudan bezala, (...) esan gura dut... entzuteko prest nauzula.»	(0)
obo 'zirkulua'	«Aitor lixa paper txiki batekin igurzten eta lika ematen hasi da, zuloaren inguruan obo txiki bat marratuz.»	(0)
oinazetan 'asko sufritzen'	«Lidia oinazetan dago, gogoeta erdiragarri horiek bere sinesmenak eta susmoak batera eta bestera darabiltzatela.»	(0)
oldar 'bulkada, erasoa, inpultsua'	«Bat-bateko oldar batek liburua itxi eta treneko bar-bagoira joatera bultzatu du.»	(0)
olgetari 'jolastia'	«Lidia bere enpresako langela nagusian dago (...) proiektu batean lanean, buru-belarri... sakelako telefonoaren doinu olgetaria entzun duenean...»	(0)
ondino 'oraindik'	«—Ez dakigu zehatz ondino . Haren atzetik gabilz ordu batzuetatik hona.»	(0)
ordubetegarrenean 'handik ordubetera'	« Ordubetegarrenean berriz ere sofan jesarri denean, askoz ere hobeto sentitzen da.»	(0)
oso-osoan 'zintzo-zintzo, naturaltasunez'	«—Gelditu hemen lotan, nahi baduzu. Badakizu ez dagoela arazorik —proposatu dio Lidiak oso-osoan .»	(0)
ostera(txo) 'buelta(xka), paseotxoa'	«—Ba, lanetik irten eta bila joango natzaizu... osteratxo bat egitera joan gintezke, haize freskoa hartzera. Zer deritzozu?»	(0)
ponpoxo 'polita, dotorea'	«Eta hiru etxe eder: Uriondoko pisu ponpoxo hau, kostaldeko apartamentua Luzaron eta Mendikoborda ederra...»	(0)
pozarren 'pozaren pozaz, poz-pozik'	«—Ba, baietz, pozarren —esan du Aitorrek erabakitsu.»	(0)
sasoiz 'garaiz'	«Gari hogeit metro tara dago. Sasoiz dago deia egiteko.»	(0)
sen 'intuizioa'	«Halan da be... senak dinostana da mutil hori errubakoa dala.»	(0)
sibarita 'atsegin finen zalea'	«Gariren egoera etorri zaio gogora: bai lanpostua eta bai soldata apalak ditu; hala ere, luxu zalea eta sibarita samarra da, baina...»	(0)
soaren xerka 'begiradaren bila'	«Eta mahaietan nahiz barra inguruan dauden guztiei azken begiratu egin die, bataren eta bestearn soaren xerka , agur keinu bana eginez.»	(0)
sorgorraldi 'sentikortasun gabeko aldia'	«Eta, sorgorraldi labur horretatik irten denean, inguruan ez dago inor, aienatu da ahots lakarreko silueta...»	(0)



sorgortu 'sentikortasun gabea'	«...gero gorputz sorgortu hori luzatu egingo duzu ariketa batzuk eginez...»	(0)
sunda 'usaina, susmoa'	«Baina poliziak badaki zein den profesional bat eta zein ez. Kilometrotara hartzen digute sunda .»	(0)
tanga 'edalontzi euskarriduna'	«Itzuli da, hala ere, handik gutxira, erretilu biribil bat eskuan orekan dakarrela: haren gainean, bi tanga bete te eta galleta batzuk dakartza.»	(0)
tantai '(zuhaitz) luzea'	«Baso ertzean kokatua da, aurrean landatxo bat eta alboan intxaurrondo tantai dituela.»	(0)
tirriki-tarraka 'oinak herrestatuz, astiro-astiro'	«Jesarri egin da, geroxeago zutundu ere bai... tirriki-tarraka sukaldera jo du...»	(0)
trikimailu 'azpijokoa'	«—Emakume batek eraman zuen hara, trikimailu bihurri bat erabiliz.»	(0)
txanbelin 'liraina, ikusgarria'	«..pisu handiko proba bi aldean daukozala: telefonoaren arrastoa eta zure bitxiak: bat aldean, <i>zazpiak bat</i> iduneko txanbelin hori...»	(0)
txiri-txiri 'mantso-mantso'	«Hamar bat minutu txiri-txiri ibilitakoan borda inguruan dira.»	(0)
txitxildu '(begiak) erdi itxita'	«Begiak txitxilduta , mahaitxoaren gaineko telefonoari begiratu dio, Gariren ahotsa erdi ametsetan entzun duenean...»	(0)
xurgatu 'zurrupada'	«Miriamek zigarro bat piztu du eta lehenengo xurgatua emandakoan, hitza hartu du berriz ere, ahotik kea jaurtiz batera...»	(0)
zabu egin 'balantzaka jardun'	«...eta aldi berean automobil bat (...) sirena joka hurbildu zaie abiadura bizian, belardiaren gainetik ezker-eskuma zabu eginez eta estropezuka...»	(0)
zantzu 'aztarna, seinalea'	«Buruko edo kuxin batekin ito eraginda... eta ondoren, ondoren gero!, kolperen bat eman, bortizkeria zantzuren bat utzi...»	(0)
zelatan 'zaintzen, inoren begira egon'	«Trenean zelatan gengoan; Miriamek mezua bialdu eban zenbakira deitu genduan, eta dra!»	(0)
zertzelada 'xehetasuna'	«Bilatu xehetasun txikiak, besteoi iges egingo leuskiguen zertzeladak ... egiara helduteko behinenak izan leitekezanak...»	(0)
ziplo 'bat-batean'	«—Lasai, ez nauzu batere gogaitzen... oraingoz behintzat —erantzun du Lidiak ziplo , Aitorri konfiantza eman dion halako naturaltasunarekin.»	(0)
zirto 'hitz-jokoa, zirrikada'	«Laguna aterantz joan da, ez azken zirtoa esan gabe.»	(0)